

## Kostuak:

Kostuen artean, lehenik eta behin gauza zehatz batzuk ordaindu beharko ditugu. Lehenik eta behin, lehen aipatu dugun bezala, makinaren ordainketa, hau da, 18.000€ inguru guztietatik eta zentruaren barruan eduki beharreko ekipoa eta tresnak. (1.200€ inguru).

Kostuen artean kostu finkoak eta aldakorrek izango ditugu.

Kostu finkoei erreparatuz, zentrala edukitzeagatik 2.300 €-ko alokairuagatik ordaindu beharko dugu hilero. Gainera, plastikoaren bilketari dagokienez, *Transportes Iurreta* edo *Transportes Better Trans* ([649 80 38 02](tel:649803802)) adierazten duenez, prezioa merkea izango zen, makinaren arteko distantzia txikia delako, hau da, azkenean prezioa 300€ ingurukoa izango zen buelta osoa emanda. Hau, kontuan izanda makina bakoitzaren edukiera 400kg izatera heldu daitezke.



Baina, beti ere azkeneko prezioa aldatu daiteke, hainbat faktore ( trafikoa, denbora, ...) direla eta.

Bestetik, kostu aldakorrei erreparatuz, zentrala edukitzeak eta mantentzeak ekarri ditzakeen gastu elektrikoak eta garbiketa gastuak ordaindu beharko ditugu. Hau da argiari eta elektrizitateari dagokionez 800€ izango ziren, hau kontuan izanda led argiak erabiliko ditugula, zeren eta bestela prezioa 6.000€ izatera helduko zen. Gainera, garbiketari dagokienez, hilabetero 220€ izango ziren, bai zentralaren garbiketa mantentzeko, bai plastikoa garbitzeko.

Produktuak	Kostu aldakorra	Kostu finkoa
Makinak		18.000€
Zentroaren ekipoa		1.200€
Zentrala		2.300€ (Hilero)
Transportea		300€
Zentralaren elektrizitatea	800€ (Hilero)	
Zentralaren garbiketa	220€ (Hilero)	
Kostu totalak	1020€	21.800€